

KONTRATAZIORAKO AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB) BETETZEKO ARGIBIDEAK

Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenean jasoriko orientabideak hartu dira aintzat KAEB eskabide-orri arautua betetzeari begira. Izan ere, ebazpen hartan argitaratu zen Administrazio Kontrataziorako Aholku Batzordeak Europako Batasuneko kontratazio publikoen gaineko Zuzentarau berriaren arabera (apirilaren 8an argitaratu zuen Espainiako Aldizkari Ofizialak) aurreikusi den Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren erabilerari buruzko Gomendioa.

I. ZATIA: Kontrataziorako prozedurari eta esleipen-botereari edo esleipen-erakundeari buruzko informazioa

Lizitazioaren iragarkian zehaztuko da inprimakiaren alde honetan eskatzen den informazioa, eta beterik egongo da XML artxiboa, iragarki horrekin batera aurkeztuko dena, deskargatutakoan.

Kontratugilearen nortasuna

Izen ofiziala Irungo Udala

Herrialdea: Espainia

Izenburua:

Kontratazioaren azalpen laburra:

Esleipen-botereak edo esleipen-erakundeak esleituriko espedientearen erreferentziatzko zenbakia:

II. ZATIA: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

Bere datuekin beteko du lizitatzailleak (nortasuna eta ordezkaritza).

Lizitatzailleen Erregistroan izena emana diren enpresek, Erregistro horretan ageri ez den informazioa edo, ageri bada ere, behar bezala eguneraturik ez dagoen informazioa baizik ez dute eman behar izango inprimakiaren II. Zati honetan.

Enpresei dagokie datu edo informazio horiek ELESEO (espainieraz ROLECE) edo Estatuko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean emanak diren edo ez egiaztatzea eta, hala badaude, guztiz ziurtatu beharko dute datu horiek behar bezala eguneraturik daudela.

Hona hemen, **ELESEOri dagokionez**, orientabide gisa zer nolako informazioa edo datuak emanak egon litezkeen eta zein ez adieraziko digun koadroa:

ATALA	ELESEOn EMANA ETA JASOA OTE DA DATU EDO INFORMAZIO HAU?
A ATALA	
Identifikazioa	Enpresak eman beharreko informazioa. BEZ zenbakitzat hartuko da IFZa, herritar edo enpresa espainiarren kasuan, AIZa Espainian bizi diren herritar atzerritarren kasuan, eta VIES edo DUNS direlakoak atzerriko enpresen kasuan.

Informazio orokorra	
Lehen galdera: <i>Mikroenpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina ote da operadore ekonomikoa?</i>	Ez dago ELESEOn.
Bigarren, hirugarren eta laugarren galderak (kontratazio erreserbatuen kasuetan baizik ez)	Ez daude ELESEOn.
Bosgarren galdera (enpresa sailkaturik ote dagoen)	Bai, ELESEOn egon liteke, baina honela erantzun behar du enpresak: Bai: sailkaturik badago. Ez: sailkaturik ez badago. Ez da bidezkoa: lizitatu den kontratuari begira sailkatu izatea beharrezkoa ez denean.
Seigarren galdera	
- a) letra	Bidezkoa da erantzutea enpresa obra edo zerbitzuen kontratista gisa sailkaturik badago. Inskripzioaren edo ziurtagiriaren zenbaki gisa, nahikoa da norberaren edo enpresaren IFZ, AIZ, VIES edo DUNS delakoaren zenbakia ematea.
- b) letra	Erantzun egin behar du enpresak. ELESEOn kasuan, https://registrodelicitadores.gob.es izango da web orria, Estatuko Administrazio Kontratazioarako Aholku Batzordea (edo alegatutako sailkapena eman zuen Autonomia Erkidegoko organo baliokidea) izango da agente edo erakunde jaulkitzailea, eta, kasuen arabera, enpresaren IFZ, AIZ, VIES edo DUNS delakoari egingo zaio «agirien erreferentzia zehatza».
- c) letra	Taldea, azpitaldea eta kategoria adierazi behar ditu enpresak.
- d) letra	Ez dago ELESEOn.
- e) letra	Ez dago ELESEOn. (baina zenbait autonomia erkidegotako Lizitatuzaileen Erregistroetan egon daiteke)
Parte hartzeko modua	Ez dago ELESEOn.
Sortak	Ez dago ELESEOn.
B ATALA	ELESEOn egon liteke.
C ATALA	Ez dago ELESEOn.
D ATALA	Ez dago ELESEOn.

III. ZATIA: Bazterketarako arrazoiak

Betekizuna betetzen den ala ez adierazi beharra dago. Espainiako legeriarekiko baliokidetasuna jaso da, informazio mailan.

III. ZATIA, ATALAREN ZENB.	ZB (2014/24/EB ZUZENTARAU)	SPKLTB
---------------------------------------	---------------------------------------	---------------

A ATALA: Zigor-kondenekin loturiko arrazoiak	57.1 artikulua	60.1.a) artikulua (Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurka, Zergen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketaren alorrean, eginiko delituak izan ezik.
B ATALA Zergen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketarekin loturiko arrazoiak	57.2 artikulua	60.1 artikulua: <ul style="list-style-type: none"> • a) letra (Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurka, Zergen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketaren alorrean, eginiko delituen kasuan). • d) letra, lehenengo paragrafoa, lehenengo hitz-tartea. • f) letra (Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren arabera ezarritako zehapen administratibo irmoen kasuan).
C ATALA: Kaudimen ezarekin, interesen arteko gatazkekin eta huts profesionalekin loturiko arrazoiak		
Lehenengo galdera	57.4.a) artikulua	<ul style="list-style-type: none"> • 60.1.b) artikulua (arau-haustea arlo profesionalean edo lehiakideen faltsutze gaietan oso larria ez denean); • 60.1.d) artikuluko lehenengo paragrafoa, bigarren hitz-tartea (langile desgaituen % 2ko eskakizuna ez betetzearekin loturiko guztian).
Bigarren galdera	57.4.b) artikulua	60.1.c) artikulua
Hirugarren galdera	57.4.c) artikulua	60.1.b) artikulua (arau-hauste oso larria arlo profesionalean).
Laugarren galdera	57.4.d) artikulua	60.1.b) artikulua (arau-hauste oso larria lehiakideen faltsutze gaietan).
Bosgarren galdera	57.4. artikulua, e) letra	60.1.g) eta h) artikulua
Seigarren galdera	57.4. artikulua, f) letra	56. artikulua
Zazpigarren galdera	57.4.g) artikulua	60.2 artikulua, c) eta d) letrak
Zortzigarren galdera -a), b) eta c) letrak	57.4.h) artikulua	60.1 artikulua, e letra eta 60.2 artikulua, a) eta b) letrak
-d) letra	57.4.i) artikulua	60.1.e) artikulua
D ATALA Bazterketarako arrazoi soil-soilik nazionalak	—	60.1.g) artikulua (Diru-laguntzaei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoaren arabera zehapen administratiboaren kasuan)

IV. ZATIA: Hautapenerako irizpideak

II. zatian bezala, Lizitatzaileren Erregistroan izena emana diren enpresek, Erregistro horretan ageri ez den informazioa edo, ageri bada ere, behar bezala eguneraturik dagoen informazioa baizik ez dute eman behar izango inprimakiaren IV. Zati honetan. Berrero ere, informazio mailan eta orientabide gisa eskaintzen dugu, **ELESEOri dagokionez**, zer nolako informazioa edo datuak emanak egon litezkeen eta zein ez adieraziko digun koadroa.

ATALA	ELESEOn EMANA ETA JASOA OTE DA DATU EDO INFORMAZIO HAU?
A: Hautapenerako irizpide guztiei buruzko adierazpen globala	Ez dago ELESEOn.
A ATALA: Egokitasuna	
Lehenengo galdera	Ez dago ELESEOn, enpresaria erregistro profesional batean inskribaturik badago. ELESEOn egon liteke, enpresaria merkataritza erregistro batean edo kooperatiba, fundazio edo elkartearen erregistro batean inskribaturik badago.
Bigarren galdera	ELESEOn egon liteke, legeria nazionalaren arabera kasuan kasuko zerbitzua emateko orduan baimena, elkargokidetzak edo antzekoa eduki beharko balu.
B ATALA: Ekonomia eta Finantza kaudimena	
1.a) galdera	ELESEOn egon liteke.
1.b) galdera	Ez dago ELESEOn, baina edozein epealditako urteko batez besteko negozio-kopurua kasuan kasuko ekitaldietako urteko negozio-kopuruari buruzko datuetan oinarrituta kalkulatu ahal izango da (inskribatzeko moduko datuak, aurreko galderan aipatutakoak)
2.a) galdera	Ez dago ELESEOn.
2.b) galdera	Ez dago ELESEOn.
3) galdera	ELESEOn egon liteke.
4) galdera	Ez dago ELESEOn, baina ratio finantzario guztiak urteko kontuetako datu finantzarioetan oinarrituta kalkulatu ahal izango dira (datu horiek inskribatu egin ahal izango dira)
5) galdera	ELESEOn egon liteke.
6) galdera	Ez dago ELESEOn.
C ATALA Gaitasun teknikoa eta profesionala	Ez dago ELESEOn.
D ATALA Kalitatea segurtatzeko sistemak eta ingurumenaren kudeaketarako arauak	Ez dago ELESEOn.

V: ZATIA: Hautagai kualifikatuen kopuruaren murrizketa

Zati hau ez da bete behar

VI. ZATIA: Azken adierazpenak

Bete ondoren inprimatu eta eskuz izenpetu beharko da agiria